

| | | | |
|------------|-----------------|----------|-------|
| IKASTETXEA | IESO Larrantzar | | |
| IZENBURUA | HARRESIRIK EZ! | MAILA | DBH 2 |
| IRAKASLEA | Elena Moduga | IKASGAIA | HJA |

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

2. ATAZA

TESTUA

HARRESIRIK EZ!

Egoera ez da batere erraza gure artean dokumentaziorik gabe bizi den jendearentzat. Hori jakin badakigu gehienok ezagutuko dugulako beldurraren menpe bizi den etorkinik. Baina badira egoera latzagoetan bizi direnak ere. Badira euren herrietatik alde egin behar dutenak beraien bizitza arriskuan dagoelako, beraien egoera ekonomikoa ezin txarragoa delako, badira bizi maila hobe baten eta ongizatearen bila alde egiten dutenak.

Bidaia gogor eta beldurgarri baten ostean heldu dira Afrikako Malitik, Gambiatik, Kamerunetik, Senegaletik... Ceuta eta Melillako harresietara. Euren helburua Europan sartzea da eta ez dira geldituko. Ez dago migrazioak gelditzen dituen harresirik. Ez dago etorkinen sarrerak geldituko dituen jipoirik. Ez dago migrazio fluxuen kontrola lor dezakeen legerik. Ez dago hainbat etorkinen proiektua zapalduko duen ejertzitorik.

Immigrazioa errealitate bat da. Mugimendu migratorioak gertatzen dira eta jarraituko dira gertatzen. Jendea iristen jarraituko da eta hartu beharreko neurri politikoak ezin dira bide polizial, militar eta eskubideen zapalkuntzan oinarritu.

Gobernu Espainolak beste nolabaiteko neurriak hartu beharko ditu. Immigrazioaren inguruko hausnarketa sakonagoa egin beharko du. Sarrera bide berriak zabaldu eta erraztu beharko ditu oinarritzko eskubideak ukatu nahi ez baditu. Marokoko gobernuarekin zein EBeko beste herriekin adostu beharreko neurriak benetako lankidetzaren norabidea hartu beharko dute Herri bakoitzak bere ardura hartuz. Salatzeak da beraz espainiar gobernuak hartu dituen erabakiak: harresi ingurura ejertzitza bidaltzea, harresia handitzea eta indartzea, poliziaren indarkeria babestea, xenofobia eta etorkinenganako beldurra sustatzea, Marokoko gobernuarengan ardura osoa uztea...

Salatzeak da komunikabideak egiten ari diren informazio trataera ere. Ez da inbasiorik existitzen, migrazioak errealitate historikoa dira, ez dago "avalancharik" Espainiako mugetan. Badago, ordea, giza eskubideen zapalketa argia, hilketen eta jipoien informazio falta, kanporaketa ilegal etengabeak... Hau da, hain zuzen ere, hedabideek zabaldu behar duten informazioa.

Estatu Espainolak eta bere Atzerritarren legeak sarbide legalak, normalizatuak bideratzen ez dituen bitartean, jendeak sarbide arriskutsuagoak bilatuko ditu. Atzerritarren legeak ez ditu inolaz ere mugimendu migratorioak erregulatuko, beraz, beste nolabaiteko politika egiteko garaia da. Giza eskubideak errespetatu daitezela behin betiko.

Joanes Allende Enciendo

Egilea: *Joanes Allende Enciendo*

Iturria: <http://www.mugak.eu/gunea/sosracismo/>

| JATORRIA | |
|-----------------------|---|
| EGILEA | <i>Joanes Allende Enciendo</i> |
| IZENBURUA | HARRESIRIK EZ! |
| ARGITALETXEA/Webgunea | http://www.mugak.eu/gunea/sosracismo/sal/har |
| URTEA | 2005 |
| ORRIALDEA (K) | |
| ISBN | |
| TESTU-MOTA | |
| OINARRIA | Inprimakia |
| FORMATOA | Jarraia |
| MOTA | 14 |
| ERABILERA | Pribatua |

| JARDUERAK |
|---|
| 1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU |
| 1.1 Galdera |
| Nondik nora egiten dituzte etorkinek bidaiak beldurgarriak? (puntu 1) |
| 1.1 Erantzuna |
| Afrikako Malitik, Gambiatik, Kamerunetik, Senegaletik... heldu dira Ceuta eta Melillako harresietara |
| 1.1 OHARRAK |
| |
| 1.2 Galdera |
| Zein da komunikabideek hedatu behar duten informazioa? (2 puntu) |
| 1.2 Erantzuna |
| Ez dela inbasiorik existitzen. Migrazioak errealitate historikoa dira, ez dago "abalantzarik" Espainiako mugetan. Badago, ordea, giza eskubideen zapalketa argia, hilketen eta jipoien informazio falta, kanporaketa ilegal etengabeak. |
| 1.2 OHARRAK |
| |
| 2. ULERMEN OROKORRA |
| |
| 2.1 Galdera |

Zein asmorekin egin du gutun hau Joanesek? (2 puntu)

2.1 Erantzuna

Etorkinen egoera salatzeke eta gobernuari eta komunikabideei jokabidea aldatzeko eskatzeko.

2.1 OHARRAK

2.2 Galdera

Esan EGIA ala GEZURRA diren hurrengo baieztapenak (2 puntu)

- Etorkinentzat okerrena dokumentaziorik gabe bizitzea da
- Etorkinek bizi dituzten egoera txarren irtenbidea giza eskubideak errespetatzea da
- Komunikabideek ez dute ezer egin behar egoera hau aldatzeko
- Atzerritarrek, nahiz eta debekua izan, etortzen jarraituko dute

2.2 Erantzuna

- G
- E
- G
- E

2.2 OHARRAK

2.3 Galdera

Aukeratu beheko hitzen artean egokiena eta hutsuneak bete: (2 puntu)

_____ bizi duten egoera _____ arrazoiak lau izan daitezke: _____ arriskuan dutelako bere alde egin behar dutela, beraien egoera _____ ezin txarragoa dela, bizi maila _____ eta bila joaten direla; eta hau ez du inork geldituko, ez _____, ez indarkeria _____, ezta inolako _____ ere. Irtenbide bakarra _____ osoan eta _____ guztien errespetatzea da

Atzerritarrek, giza eskubideak, ongizate, ekonomikoa, txarraren, legeek, gizaki, herrialdetatik, polizialak, bizitza, hobia, harresirik, mundu.

2.3 Erantzuna

Atzerritarrek bizi duten egoera txarraren arrazoiak lau izan daitezke: bizitza arriskuan dutelako bere herrialdetatik alde egin behar dutela, beraien egoera ekonomikoa ezin txarragoa dela, bizi maila hobia eta ongizate bila joaten direla; eta hau ez du inork geldituko, ez legeek, ez indarkeria polizialak, ezta inolako harresirik ere. Irtenbide bakarra mundu osoan eta gizaki guztien giza eskubideak errespetatzea da

2.3 OHARRAK

3. INTERPRETAZIOA- INFERENTZIAK

3.1 Galdera

Zein neurri hartzen ahal dira gaur egungo emigrazioaren arazoa konpontzeko? (puntu 1)

| |
|---|
| 3.1 |
| Beste nolabaiteko politika egitea eta Giza eskubideak errespetatu daitezela behin betiko. |
| 3.1 OHARRAK |
| 3.2 Galdera |
| Idazleak hainbat esapide erabili ditu atzerritarren egoera deskribatzeko: “ez da batere erraza (...)”, “(...) egoera latzagoetan (...)”, “bidaia gogor eta beldurgarri (...)”... zergatik uste duzu egin duela? |
| 3.2 Erantzuna |
| Atzerritarrek bizi duten egoera txarra azpimarratzeko |
| 3.2 OHARRAK |
| 4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA |
| 4.1 Galdera |
| Emigrazioaren aurrean zein da Espainiako Gobernuak duen jarrera zure ustez? (adibideen bidez azaltzen ahal duzu) (2 puntu) |
| 4.1 Erantzuna |
| Atzerritarren legearen bidez etorkinak beren herrialdetara bueltatzen ditu eta paperak izateko oztopo handiak jartzen dizkie |
| 4.1 OHARRAK |
| 4.2 Galdera |
| Bide polizial edo militarrek zergatik ez dira egokienak egoera konpontzeko? Zure erantzuna arrazoit. |
| 4.2 Erantzuna |
| Hausnarketa sakonagoa egin behar da, oinarrizko eskubideak bermatzeko. Gizarte osoak aldatu behar du. Politika ezberdin bat egin beharko litzateke... |
| 4.2 OHARRAK |
| 5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA |
| 5.1 Galdera |
| Egoera txarra adierazteko lau adjektibo bila itzazu testuan. |
| 5.1 Erantzuna |
| Lazgarria / gogor / beldurgarri |
| 5.1 OHARRAK |
| 5.2 Galdera |
| Zergatik “avalancharik” hitza komatxoaren artean agertzen da?(2 puntu) |

| |
|---|
| |
| 5.2 Erantzuna |
| Alde batetik, gaztelaniako hitza da, eta bestetik, komunikabideek hedatzen duten informazioa egia ez dela agerian uzteko edo azpimarratzeko |
| 5.2 OHARRAK |
| |
| |
| |